

BONBA KLIMATIKOA

Sei urtean gose larria %123 igo da klima-aldaketaren hamar puntu kritikoenetan

Muturreko gose-maila %123 igo da sei urtean klima-aldaketak gehien kalte-tu dituen hamar herrialdeetan, Oxfam GKEak egindako azterketaren arabera. Erakundeak berehalako neurri politikoak eskatu ditu atzeraelikatzen den krisi bikoitzari aurre egiteko.

Somalia, Haiti, Djibuti, Kenya, Niger, Afganistan, Guatemala, Madagaskar, Burkina Faso eta Zimbabwen, muturreko fenomeno klimatologikoengatik NBERen alerta gehien duten herrialdeetan, 48 milioi pertsona daude, guztira, elikadura gabezia larrian eta, horietatik, 18 milioi gosetearen atarian daude.

INGURUMENA / GAUR8

«Gure begien aurrean lehertzen ari den bonba bat da» klima aldaketa. Eta aise gainditzen du herrialde pobreek aurre egiteko duten gaitasuna. Ondorioz, are gehiago murgiltzen ari dira muturreko gose-egoeran. Klima-aldaketak gehien eragindako hamar herrialdeetan %123ko igoera izan du gose larriak azken sei urteetan.

Oxfamek nabarmendu du hamar herrialde horiek batera munduko karbono-isurketen %0,13ren ardura bakarrik izan arren, krisi klimatikoaren ondorioak ordaintzen ari direla, horri aurre egiteko prest egon gabe —Afrikako Adarrean agerian geratu den bezala, aurrekaririk gabeko lehortearekin—.

Emakume bat bidoi batetik ura edaten, Somaliako Muuri desplazatuaren eremuan. Somalian 200.000 pertsona gosetearen atarian daude. Mohamed ISACK | AFP

Aitzitik, industrializatuene eta kutsatzaileenek (G20 taldekoak, esaterako) munduko ekonomiaren %80 kontrolatzen dute, eta, oro har, munduko karbono-isurketen hiru laurden baino gehiago eragiten dituzte.

Gainera, «herrialde horietako agintariek enpresa kutsa-

tzaile aberatsak babesten jarraitzen dute, kasu askotan hauteskunde-kanpainetarako babes handia ematen dietelako», kritikatu du Oxfamek.

Gabriela Bucher GKEko zuzendari exekutiboak adierazi duenez, klima aldaketa «jada ez da erloju-bonba bat»: «gure begien aurrean lehertzen ari da», hondamendi natural hilgarriagoen eta ohikoagoen biktartez. Izan ere, azken mende erdian bost aldiz biderkatu dira hondamendi horiek.

«Pakistanen lur azalaren heren bat ur azpian dago. Laboreak eta lurrak suntsituta geratu dira, eta nekazaritzako azpiegiturak, birrinduta. Arabiar itsasoaren beste ertzean, Somalian 40 urtean inoiz izandako lehorte larriena jasaten ari dira, uztak eta abelburuak galduta. Klima ez da



aldatzen ari. Klima aldatu egin da», laburbildu du Oxfamek.

«Hondamendi klimatikoen oldeak aise gainditzen du po-
breek aurre egiteko duten gai-
tasuna, eta are gehiago mur-
giltzen ditu muturreko
gose-egoeran», gaineratu du.
Izan ere, gaur egungo krisia
are gehiago nabarmentzen ari
da mundu mailako desberdin-
tasuna. Bucherren arabera,
«krisi klimatikoen errepikape-
na jipoi hilgarri bihurtzen ari
da» gutxien garatutako he-
rrialdeentzat.

DESBERDINTASUNARI AURRE EGITEA

Oxfamek herrialde aberatse-
nak eta kutsatzaileenak jarri
ditu jomugan, baita haien en-
presak ere, eta gogorarazi du
hidrokarburo-enpresek 18 egu-
netan lortutako irabaziekin
soilik ordain litezkeela NBERen
aurtengo dei humanitario guz-
tiak: 49.000 milioi dolar, hain
zuzen ere. Oxfamek kalkulatu
du 2.800 milioi dolar irabazi
dituztela egunero enpresa ho-
riek azken 50 urteetan.

Hidrokarburo-enpresen ur-
teko mozkinen batez bestekoa-
ren %1 10.000 milioi dolar da,
eta hori «nahikoa litzateke Na-
zio Batuen Erakundeak elika-
gaien segurtasunerako eginda-
ko deialdi globalaren defizit
gehiena estaltzeko».

Gabriela Bucherrek herrial-
de aberatsen «erantzukizun
moralak» eskatu du, klima-al-
daketak kaltetutako errenta
baxuko herrialdeei laguntze-
ko. «Ez da karitatea, betebeharrak
etikoa baizik», nabarmen du,
larrialdiei aurre egiteko finan-
tzaketa-modu berriak bilatze-
ko egindako deialdi baten ba-
rruan.

Ildo horretan, energia- eta
elikadura-sistemen «egitu-
razko desberdintasunak»
konpontzea planteatu du, ku-



tsatzaileen zergak handi-
tuta.

Oxfamek herrialde ahule-
nen zorra barkatzearen alde
ere egin du, haien gobernuak
baliabide horiek klima-alda-

Txabola-herri batean bizi
diren pertsonak,
Bangaloreko euriteen
ondoren urpean geratu
den bizilekuaren
ondoan.
Manjunatk Khiran | AFP

ketaren aurrean erresilien-
tzia-ekintzetan erabili ahal
izan ditzaten.

«Aldaketa esanguratsuak be-
har dira politketan, klima-al-
daketaren eta gosearen krisi

bikoitzari aurre egiteko. Bere-
halako neurri masiboak har-
tzen ez badira, gose-espiral ge-
ro eta handiagoa geldiezina
izango da», ohartarazi du era-
kunde honek.

BI LEHORTERI BURUZKO HISTORIA: SOMALIA ETA AEB-AK

Klima-aldaketaren ondorioek ez diete
guztiei berdin eragiten. 2020az
geroztik, Ameriketako Estatu
Batuetako mendebaldeko eremu
zabalek mendeetan izandako
lehortetik larriena jasan dute; batez
ere, klima-aldaketaren ondorioz.

Gaur egun, AEBetako lurraldearen
%64ak muturreko bero-boladak eta era
bateko edo besteko ur-ekasias jasaten
dituela kalkulatu da.

Hala ere, lehorte horien larritasuna
gorabehera (lehorte bakoitzak, batez
beste, 10.000 milioi dolarreko kostua
eragin du), eragin ekonomikoa oso
mugatua izan da, aldaketa
klimatikoen puntu kritikoenetan
lehorteek duten kostu
ekonomikoarekin alderatuta.

Izan ere, AEBak klima aldaketarako
ongien prestatuta dauden herrialdeen
%10en artean daude, botere
ekonomikoari esker.

Botere ekonomiko hori, besteak
beste, 23 bilioi dolarreko BPGan
islatzen da.

Horri esker, bertako Gobernuak
kaltetutako nekazari txikiei eta
egoera ahulenean dauden pertsonen
klima-aldaketaren eraginetara
egokitzen eta azkar erreku-
peratzen lagundu ahal izan die.

Somalia klima aldaketarako
prestatutzaren zerrendako 172.
postuan dago, 182 herrialde-
tik.

Mende erdian lehortetik larriena
pairatzen ari da, eta zazpi milioi
pertsona gosea pasatzen ari dira eta,

horietatik 200.000 gosetearen atarian
daude.

Gutxi gorabehera, 3 milioi abelburu
galdu dira lehortearen ondorioz.
Somaliako familien hondamendia
izugarria da. Izan ere, haien elikagai-
iturriak, diru-sarrerak eta aurrezkiak
abere-taldearen mende daude, batez ere.

Herrialdeak 1.500 milioi dolar behar
ditu premiaz ura eta bizi-elikagaiak
lortzeko, eta, horrela, biztanleria
goseak jota gera ez dadin.

Kopuru hori herrialdeko BPGaren
%30 da. Hala ere, urteetako kolapso
ekonomikoak, etengabeko gatazkek
eta kanpo-zor gero eta handiagoak
hondamendi klimatikoei aurre
egiteko Somaliako Gobernuak duen
gaitasuna suntsitu dute.

NBERen Batzar Nagusiak joan den hilabetean egindako bileran erantzuna izan behar zuen mezu horrek, baina estatu eta gobernu buruen ohiko hitzaldietan ez zuen oihartzunik izan.

Azaroan, klimaren inguruko COP27 gailurrean ere proposamen zehatzak aurkezteko aukera izango da. Bertan «berezi-ki herrialde aberatsek eta kutsatzaileen buruek isurketa gutxitzeko konpromisoak betetzen dituztela erakutsi beharko dute», nabarmendu zuen Bucherrek.

HAMAR PUNTU KRITIKOAK

«Klima-aldaketak gehien eragindako 10 herrialdeetan %123ko igoera izan du gose larriak azken sei urteetan», dio txostenak, Somalia, Haiti, Djibuti, Kenya, Niger, Afganistan, Guatemala, Madagaskar, Burkina Faso eta Zimbabwe aipatuta.

Hamar «puntu kritiko horiek» jaso dute, muturreko fenomeno meteorologikoei lotuta, Nazio Batuen Erakundearen larrialdi-dei gehien.

Gaur egun, 48 milioi pertsona gose egoera larrian daude herrialde horietan –2016. urtean, 21 milioi ziren–. Horietatik 18 milioi gosetearen atarian daude.

Sei urteko aldia (2016-2021) aztertzen duen txosten horretako bost adibide nabarmendu ditu Oxfamek. Batetik, Somaliak –Afrikako Adarra osatzen du Djibuti, Eritrea eta Etiopia-rekin batera– aspaldiko lehor-te larrienari aurre egin behar dio, eta bi eskualdetan gosetea izatea aurreikusi da. Euri falta dela eta, bestalde, milioi bat pertsonak etxetik alde egin behar izan dute. Herrialdea 182tik 172. postuan dago kli-

Uholdeen ondorioak jasan dituzten pertsonak, ilaran, janaria jasotzeko, Sindh probintziako Sehwan herrian, kanpamendu inprobisatu batean, Pakistanen.
Husnain ALI | AFP



ma-aldaketari aurre egiteko prestakuntzari dagokionez.

Bestetik, Kenyan lehor-teak ia 2,5 milioi abelburu hil ditu eta 2,4 milioi pertsona gosea pasatzen ari dira; horien artean, muturreko desnutrizio egoeran dauden ehunka mila haur. Nigerren (Afrika mendebal-

dea), 2,6 milioi pertsona gose larria pasatzen ari dira; hau da, %767 hazi da, 2016arekin alderatuta. Zerealen ekoizpena ia %40 erori da, muturreko fenomeno meteorologikoei, etengabeko gatazkekin batera, gero eta gehiago zailtzen baitituzte nekazaritza-jarduerak.

Berotze globala 2° C-tik gorakoa bada, artatxikiaren, sorgoaren eta antzeko oinarritzko elikagaien ekoizpena %25 gehiago amildu daiteke.

Burkina Fasok —Niger bezala, Sahel eskualdean— gosearen igoera kezagarria izan du, %1.350 hazi baita 2016tik; 2022ko ekainean 3,4 milioi pertsona baino gehiago muturreko gose egoeran zeuden, gatazka armatuaren eta laborantza eta artzaintza lurren desertifikazioaren ondorioz.

Lehorte larriak ez dira Afrikan bakarrik gertatzen. Guatemalan, lehor-te larri batek arto-uztaren %80 inguru galtzea eragin du, eta kafe landaketak suntsitu ditu. «Ia zortzi egun eman ditugu ia janaririk gabe», dio Mariana Lopezek, Erdialdeko Amerikako Korridore Lehorreko Naranjo herrian bizi den amak. Lehorte iraunkorrak lurrrak saltzera behartu zuen.

Oxfamek, bestalde, gosea hedatzen laguntzen ari diren bost muturreko fenomenoak jaso ditu txostenean: Asiako tifoia, ekialdeko Afrikako lehor-tea, hegoaldeko Afrikako zikloia, Sahelako lehor-tea eta Erdialdeko Amerikako Korridore Lehorra.

ASIAN TIFOIEK DESBERDINTASUNAREN ARRAKALA HANDITZEN DUTE

Asiak elikadura-segurtasun falta eta hondamendi arrisku handia du, muturreko fenomeno meteorologikoei sarritan astintzen dutelako kontinentea. 2020an, gose kronikoak jotako mundu osoko biztanleriaren erdia –418 milioi pertsona, aurreko urtean baino 57 milioi gehiago– Asian bizi zen.

Beste modu batez esanda, janari nutritibo bat Asiako biztanleriaren zati handi baten ahalmen ekonomikotik kanpo dago: 2020. urtean, 1.900 milioi pertsonek ezin zuten dieta osasuntsua izan.

Krisi ekonomikoei, pandemiak edo elikadura merkatuetan gertatzen direnek prezioak nabarmen garestitu dituzte, ezberdintasunak areagotu eta gosea handitzearekin batera.

Zikloiek, tifoiek eta uholde monzonikoek pertsona askoren etxeak eta diru-sarrerak suntsitu dituzte eta

desberdintasunaren arrakala zabaltzen dute Bangladesh, Nepal, Pakistan eta Indian.

Ziklo tropikalak, 1970eko hamarkadatik, gero eta suntsitzaileagoak dira ozeanoen beroketaren ondorioz, eta XXI. mendearen amaierarako suntsitzeko ahalmena bikoiztuko dutela uste dute.

Azken 40 urteotan, lurrera iristen diren tifoien indarra %12 eta %15 bitarte handitu da, eta 4 edo 5 mailako ekaitzak hirukoiztu egin dira.

ASEAN erakundearen arabera, muturreko fenomenoek urtean 4.400 milioi dolarreko galerak eragiten dituzte eta tenperatura globalak igotzen jarraitzen badu, Asiako arroz ekoizpena %50 murriz liteke, 1990. urtearekin alderatuta.

Eta litekeena da 2030ean goseteak 38 milioi pertsona gehiago jotzea Asia eta Ozeano Bareko lurraldeetan.